

## / Nabarmenezkoak

- > Epea zabalik hautagaitzak proposatzeko "Getxo Hurbil" Merkataritza sarien hirugarren ediziorako (2. or.)
- > Aurten ere, "AixeGetxo!" sariak tokiko talentua aitortzen dute (3. or.)
- > Udazken-negu sasoiko lore-aldaketako lanak hasita (4. or.)

### \*Txakurrentzako bi gune berri sortzen hasi da Bostgarrenan eta Iturribarrin (4. or.)



**Solasaldia.** Hilak 25, asteartea, 17:00ean, "Estafas y cláusulas abusivas bancarias", Romo Kultur Etxean. Antolatzailea: Udala, EKA/ACUVen laguntzarekin.

**A-**  
**GENDA**

**Antzerkia.** Hilak 29, larunbata, 20:00etan, Muxikebarrin, "Vulcano" (gaztelaraz), Centro Dramático Nacional konpainiarekin. 15€.

## Antzerkia, tailerrak eta sentsibilizazio jarduerak Emakumeen aurkako Indarkeria Desagerrarazteko Nazioarteko Eguna dela eta

Azaroaren 25ean Emakumeen aurkako Indarkeria Desagerrarazteko Nazioarteko Eguna ospatzen dela eta, Getxoko Udalak hainbat jardura antolatu ditu indarkeria matxistak ikusarazi, hausnartu eta salatzeke helburuarekin.

Gurari Emakumeen Etxean egingo diren jardueren artean, hilaren 23an, igandean, 17:30ean, ahalduntze feminista eta arrazakeriaren aurkako proiektua den Warmipuran parte hartzen duten emakume migratzaileen eskubideak eta borroka ardatz dituen *Transformación-sanación migrante* izenburuko dokumentala proiektatuko da. Ekitaldian Mabel Medina Valenzuela zuzendariak eta dokumentaleko protagonista batzuek parte hartuko dute.

Bestalde, azaroaren 26an, 18:30ean, *Cuerpos en resistencia haciendo frente a las violencias machistas* mahai-ingurua egingo da, indarkeria matxisten adierazpenak ikusarazteko eta errealitate eta gorputz desberdinak dituzten emakumeek nola bizi duten ikusteko. Hurrengoek hartuko dute parte: Marian Andrés ASPACE BIZKAIA, Garun Paralisia duten Pertsonen Arretarako Elkarteen Federaziokoak, Hajar Samudi BIDAYA Euskadiko Emakume Musulmanen Elkarteak, Tamara Clavería AMUGE Euskadiko Emakume Ijitoen Elkarteak ordezkariek eta Elizabeth Gutierrez Ahotsdun Emakumeen Elkarteak.

*Casarse por papeles... ¡Es verdadero amor!* izango da Colectiva Caguma & Amapolas Nicaragua konpainiak eskainiko duen antzezpenaren izenburua Areetako Andres Isasi Musika Eskolan, azaroaren 29an, 19:00etatik aurrera, doako sarrerarekin tokia bete arte.



### Amaia Aguirre, alkatea:

*"Indarkeria matxistak izaera estrukturala eta komunitarioa du, eta horregatik da garrantzitsua laguntza-sareak eta sare komunitarioak bultzatzea eta babestea, funtsezkoak baitira mota horretako indarkeriei aurre egiten dietenak, bereziki, sufritzen duten emakumeak, prebenitzeko, berreskuratzeko eta erreparatzeko"*

### Collage kolektiboa

Bestalde, ostiral honetan, azaroak 21, collage edo esku-hartze artistiko bat egingo dute, Maria Arriera artista eta sortzaile plastiko eta eszenikoaren eskutik. Jarduera horretan azken egunetan Gurarin beren bizitzak zehartzen dituzten indarkeria matxistei buruzko hausnarketa-prozesu batean parte hartu duten emakumeak izango dira. Aipatutako prozesuan emakumeek idatzitako esaldiak zentroan egingako kartoizko etxe batean ipini dituzte.

### Txapa tailerrak

Gazteria Zerbitzuak *Entxapatu* txapa tailerra antolatu du Romo eta Algortako Gazteleketan, Gurarirekin koordinatuta, 14 eta 16

### Carmen Díaz, Gizarte Kohesioko zinegotzia:

*"Indarkeria matxistek emakume eta neskatu gehiegiren bizitza zeharkatzen jarraitzen dute. Erakunde gisa argia, baliabideak eta laguntza jarri behar ditugu lehen isiltasuna zegoen tokian. Azaroaren 25ean, beste ahultasun-egoera batzuk bizi dituzten emakumeengan jarriko dugu arreta, eta, hala, Getxo segurua, berdintasuneko eta indarkeriarik gabea eraikitzeke konpromisoa berresten dugu."*

urte bitarteko gazteentzat. Jarduera horren bidez, indarkeria matxistei eta horiei aurre egiteko estrategia kolektiboen garrantziaz buruzko hausnarketarako gune bat sortu nahi dute. Metodologia parte-hartzailea erabiliko da, eta hausnarketekin batera, alderdi ludikoa eta sortzailea landuko dituzte. Txapen edukiek indarkeria eta aldarrikapenei buruzko hausnarketak, emakumeen kolektiboen borroka eta emakume esanguratsuak hartuko dituzte kontuan.

Tailerra Algortako Gazteleketan izango da azaroaren 22an eta Romoan 28an, biak 17:30etik aurrera. Ez da beharrezkoa alde aurretik izena ematea.

### Pankartak eta argiztapena

Aurten ere, azaroaren azaroaren 30era arte puntu morea duten pankartak jarriko dituzte udaletxean eta Santa Klaran. Era berean, azaroaren 24tik 30era bitartean, igogailu publikoak eta Areetako kaiko pasealekua morez argiztatuko dira, puntu hori duten txartel karterak banatuko dira zerbitzu publikoetan, eta Adierazpen Institutuzional baten onarpena eztabaidatuko dute.

Azkenik, emakumeen elkarteek antolatutako jardueren artean, Gizatiar Roma-Areetako Emakumeen elkarteak bere ohiko kontzentrazioa antolatu du azaroaren 25ean, 19:30ean, Bizkaia Zubiaren ondoan dagoen puntu morean.



## AZAROAK 20 OSTEGUNA

**Ipuinaren ordua.** 18:00etan, Algortako Kultur Etxean (Villamonte) "Musikaren bidaia" (euskaraz), Sorgina Pirulinarekin. 4-8 urte. Doan. Izena emateko: [www.getxo.eus/apuntazaitz](http://www.getxo.eus/apuntazaitz)

**Zinemabarri.** 19:00etan, Muxikebarrin, Boris Lojkineren "La historia de Souleymane" (AJB). 12 urtetik aurrera. 3,50 euro.

**Hitzaldia.** 18:30etan, Algortako Kultur Etxean (Villamonte), "Etxebizitza eta gazteak. Aukerak eta baliabideak". Antolatzailea: Gazteria Zerbitzua.

**Etxebizitza buruzko belaunaldien arteko Topagunea.** "¿Puede la convivencia entre generaciones ser parte de la solución al reto de la vivienda?". 18:00etan, Romo Kultur Etxean. Izenematea: <https://labur.eus/dapcxbss>

## AZAROAK 21 OSTIRALA

**Antzerkia.** 20:00etan, Muxikebarrin, "Loreen hizkuntza" (euskaraz), La Mapaxarekin. 10€.

**Zine-Kluba.** 20:30etan, Areetako Andres Isasi Musika Eskolan, Celia Ricoren "La buena letra". 12 urtetik aurrera. 3,50 euro.

**Mahai-ingurua.** 18:30etan, Romo Kultur Etxean, "Cómo detectar la violencia y protocolos de actuación". Hizlariak: Nekane San Miguel (epailea) eta Inma Mata (genero indarkeriatik bizirik ateratakoa). Antolatzailea: Gizatiar-Romo-Areetako emakumeen elkarte soziokulturala.

**Gabonetako egitaraua 60 urtetik gorakoentzat:** Crochet, Gabonetako zuhaitza eta postrea egiteko tailerrak; zineadin, dantzak eta irteerak... Informazioa eta izenematea azaroaren 28ra arte: +60 urteko Dinamizazio Zerbitzuan, RKEEn, eta/edo 94466 0022 zenbakian.

## AZAROAK 22 LARUNBATA

**Kontzertua. Emakumeak musikan.** 17:00etan eta 19:00etan, Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, Musikalía bandaren eskutik.

**Antzerkia.** 20:00etan, Muxikebarrin, "Bodas de sangre" (gaztelaniaz), Sin Remilgos konpainiarekin. 3 euro.

## AZAROAK 23 IGANDEA

**Zinematikiki.** 12:00etan, Muxikebarrin, "Barraskiloa eta balea" (euskaraz). 2,50 euro.

**Haur zinea.** 17:00etan, Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, "Tximinoen izarra" (euskaraz). 2,50 euro.

**Haur ikuskizuna.** 18:00etan, Muxikebarrin, "Mute... eta hegan!" (euskaraz), Orain-Bi konpainiarekin. 8 euro.

**Antzerkia. Emakumeak eszenan.** 19:00etan, Romo Kultur Etxean, "Alas de hierro" (gaztelaniaz), Asociación Kalamua Antzerkiarekin. 4,50 euro.

**Santa Zeziliako kontzertua.** 19:45ean, Ama Mesedeetako parrokian, Ars Canticum Ensemble.

## AZAROAK 24 ASTELEHENA

**Errezitaldi poetiko-musikala. Genero indarkeriaren aurka.** 19:00etan, Romo Kultur Etxean. Rapsodak: Luisi Landa eta Charo Pérez. Musika: Agus Fernández eta Txema Lorente. Antolatzailea: Gizatiar.

## AZAROAK 25 ASTEARTEA

**Kontatu erretratu hau.** 18:00etan, AJANERen egoitzan (Juan Bautista Zabala 6), Getxoko ondarea argazkien bidez identifikatzeko tailerra. 60 urtetik gorakoentzat.

**Solasaldia** "Estafas y cláusulas abusivas bancarias", 17:00etan, Romo Kultur Etxean. Antolatzailea: Udala, EKA/ACUVen laguntzarekin.

## AZAROAK 26 ASTEAZKENA

**Hitzaldia.** 18:30etan, Urgul Zentroan, "La cooperación al desarrollo en un contexto de crisis global". Hizlaria: Javier Cortés (Elankidetzaren eta Elkartasunaren Euskal Agentziako zuzendaria). Antolatzailea: EurGetxo <https://eurgetxo.wordpress.com>

**Kontatu erretratu hau.** 18:00etan, Romo Kultur Etxean, Getxoko ondarea argazkien bidez identifikatzeko tailerra. 60 urtetik gora.

**Liburu-aurkezpena.** 19:00etan, Romo Kultur Etxean, "Herrimina: Areetatik Oleronera" liburuaren aurkezpena (euskaraz), Nahikari Ayo bere egilearen eskutik.

**Versadas. Olerki kluba.** 19:00etan, Algortako Kultur Etxean (Villamonte), Carmen Conderen poemak (gaztelera).

## AZAROAK 27 OSTEGUNA

**Zinemabarri.** 19:00h, Muxikebarrin, Boris Lojkineren "Sirát, trance en el desierto" (gaztelera). 16 urtetik aurrera. 3,50 euro.

## AZAROAK 28 OSTIRALA

**Zinema.** 19:00etan, Bentan (Angel etorbidea, 49), "Ombusaren itzala" filmaren emanaldia, Patxi Bisquert zuzendariaren partaidetzarekin.

**Zine-Kluba.** 20:30etan, Areetako Andres Isasi Musika Eskolan, Iciar Bollainen "Soy Nevenka". 12 urtetik aurrera. 3,50 euro.

## AZAROAK 29 LARUNBATA

**Kontzertu solidarioa. Pertsonalde GKEaren alde.** 19:30etan, Romoko San José parrokian, Ondarreta abesbatzaren emanaldia. **Build the future GKEaren alde.** 19:30etan, San Martín de Tours parrokian, Kimetz eta Zozoak abesbatzak.

**Antzerkia.** 20:00etan, Muxikebarrin, "Vulcano" (gaztelera), Centro Dramático Nacional konpainiarekin. 15€.

## AZAROAK 30 IGANDEA

**Zinematikiki.** 12:00etan, Muxikebarrin, "Anzu, gato fantasma" (gaztelera). 2,50 euro.

**Haur ikuskizuna.** 18:00etan, Muxikebarrin, "Olaiaren lorategia" (euskaraz), Pájaros Pintados & Teatro del Cuervo konpainiarekin. 6€.

# Epea zabalik hautagaitzak proposatzeko "Getxo Hurbil" Merkataritza sarien hirugarren ediziorako

Abenduaren 5era arte, herritarrek, merkataritza-elkartek eta beste entitate batzuek beren proposamenak aurkeztu ahal izango dituzte *Getxo Hurbil* merkataritza sarietarako.

Aipamen hauen helburua da udalerriko hiriko merkataritza jarduerarekin lotutako merkataritza eta zerbitzu establezimenduak aintzatestea, sustatzea eta ikusaraztea, sektoreko eragileen lanari balioa ematea eta herritarren parte-hartzea bultzatzea.

Proposamenak 6 kategoriatara aurkez daitezke:

**1. TRADIZIOA ETA IBILBIDEA.** 20 urteko baino gehiagoko ibilbide komertziala duten saltokiei dago zuzenduta, garai berrietara egokitu direnei, beren funtsari eutsiz eta sustraiei uko egin gabe.

**2. KOMERTZIO SORTU BERRIA-EKINTZAILTZA.** Azken 3 urteotan ireki duten komertzioei dago zuzenduta, bereziki beren inpaktuagatik, negozio ereduagatik... nabarmendu diren ekintzaileei.

**3. 360° IRAUNKORTASUNA.** Kontsumo arduratsua edo ingurumenarekiko eta gizartearekiko errespetuzkoa sustatzen duen negozio ereduaren dute zuzendua, betiere GJHrekin (Garapen Iraunkorrekiko Helburuak) lotuta daudenei.

**4. BERRIKUNTZA. NEGOTZIO EREDUAREN ERALDAKETA.** Beren produktuei balioa gehitu dieten zerbitzuak arrakastaz eskaini dituzten saltokiei zuzendua (teknologia-mailan, salmenta modu berrien bidez...).

**5. EKIN MERKATARI SARIA.** Enpresa-parkea dinamizatzearekin lotuta dauden saltokiei zuzendua.



**6. GETXOREN ARIMA.** Eguneroko kontsumorako hurbileko saltokiei zuzenduta dago, beren ezarpenagatik eta beren identitateagatik funtzio soziala betetzen dutenei, arrazoia edozein dela: zerbitzu-bokazioa, berezitasuna (bertako artistak hartzen dituztelako; artisau-produktuetarako, artistentzako txokotxuren bat dutelako...), bezeroei arreta emateko duten modua (eus-kara) eta Getxoko ikur izatea

**Hautagaitzak aurkeztea Proposamenak** aurkezteko interesa duten pertsonen abenduaren 5era arte egin ahal izango dute, Udalaren webgunean horretarako prestatutako galdetegiaren bidez <https://labur.eus/ktdivkbp>

Hautagai-zerrenda bakoitzean kategoriatan bakar batera aurkeztu ahal izango da. Kategoriatan batean baino gehiagotan negozio bat proposatu nahi izanez gero, edo pertsona batek negozio baterako baino gehiagorako hautagaitzak aurkeztu nahi izanez gero, beste inprimaki bat bete beharko du aldi bakoitzean.

## Eskolaz kanpoko euskarazko jardueretarako laguntzak

Udalak 42.000 euro banatuko ditu 14 ikastetxe eta 10 guraso elkarrean artean, mota desberdineko jarduerak aurrera eramanez ahal izateko, txikien artean euskararen erabilera sustatze aldera. Aurtengo eskarriak ikusita, egiaztatu da euskara lantzearen ikuspuntutik interesgarritzat jotzen diren gero eta ekimen interesgarriagoak (B ildokoak) aurkeztu dituztela zentroek eta elkartek, horien artean, ahozkotasunaren lankean aurrerapausoak emateko eta ikasleen euskarazko errefortzua ere indartzeko.

Emandako zenbatekoak 129 eta 5.031 euroren artekoak izan dira. Diru-laguntza hurrengoek jasoko dute: Azkorri, Romo, Zubilleta, Andra Mari, Santísima Trinidad, Zabala, Larrañazubi, Divino Pastor eta San Ignacio ikastetxeek; Gobelak, San Nikolas eta Geroa ikastetolek; J.C.Baroja eta Aixerrota institutuek, eta Geroa, Romo, Divino Pastor, Zubilleta, Azkorri, Andra Mari, Gobelak, Zabala, Europa eta San Ignacio zentroetako guraso elkartek.

## Ondoan Zerbitzuak arreta ordutegia luzatuko du

Ondoan adikzioei buruzko informazio eta aholkularitza udal Zerbitzuak arreta ordutegia zabalduko du, lehen urteko arreta eskaeraren datuak ikusita. Zerbitzua gazteentzat, familientzat, eta substantziazun edo substantziazirik gabeko adikzioei edo arrisku-jokabideei buruz galdetu nahi duten helduentzat. Lehen urtean pro-

fil eta adin desberdinetako 28 kasu (18 gizon eta 10 emakume) artatu ditu eta 78 saio egin ditu. Ordutegi berria, asteleheneetik ostiralera, 09:00etatik 14:00etara, eta asteazketan ere 14:00etatik 17:00etara izango da, WhatsApp eta telefono bidez 688 72 73 46 zenbakian, edo Urgull kaleko z/g-ko udal eraikineko bigarren solairuan.



## 211 lagun "Bizilagunak" bazkarietan

211 lagunek parte hartu zuten igandean, azaroak 16, *Bizilagunak-Aldameneko familia* ekimenaren barruko bertoko eta jatorri atzerriko familien arteko bazkarietan, Udalak antolatuta, EGIZU elkartearen eta Getxoko Etorkinak Federazio Plataformaren eta Eusko Jauriaritzaren laguntzarekin, besteak beste. Bazkariak zapi txokotan eta etxe batean izan ziren. Elikagaiak dastatu ondoren, parte hartzaileek bizipenak, ohiturak eta ikuspegiak partekatzeko aukera eduki zuten, harremanak sendotzeko eta aniztasuna modu positiboan bizitzeko beste pausu bat izanik. Bazkarietan Euskal Herri, Aljeria, Argentina, Bolivia, Marroko, Palestina, Txile, Kuba, Filipinas, Ukraina eta Venezuelako pertsonak hartu zuten parte, besteak beste.

**Tratu txarren biktimak artatzeko Eusko Jauriaritzaren telefono zerbitzua: 900 840 111**

**STAFF** Getxoberri eGetxoko Udaleko Komunikazio Sailak kaleratutako argitalpena da eta horretan udalari eta tokiko bizitza-erakundeetako alibiteak eta informazioak agertzen dira astero.

Erredakzioa: Nekane Ardanaga. **Monika Rodrigo, Iñigo Olondo.** Urgull kalea z.g., 4. Tel. 94 466 03 20. 48991 Getxo. e-posta: [getxokoudalaprensa@getxo.eus](mailto:getxokoudalaprensa@getxo.eus) Arte arduradunak: Diseinu eta Komunikazioa Aulesti SL. Inprimaketa: Comeco Gráfico Norte, S.L.U. Banaketa: Joal Express, S.L. Gordailu legala: BI-388-87

Erredaktoreburua: Itziar Aguayo.



• 2025eko Aurrekontu Parte-hartzaileen esparruan herritarrekin hartutako konpromisoetako bat betetzen da, jarduerak 47.000 euroko kostua izango du eta lanak urte amaierara arte luzatuko dira.

• Gune berriek, agility probak egiteko elementuak, txakurrentzako ur-iturriak, paperontziak eta bankuak izango dituzte.

• Udalerriko beste toki batzuetatik kendu diren zuhaitz-espezieak birlandatuko dira bertan, horien kokalekua ez delako bateragarria funtsezko zerbitzuetarako eta larrialdietako zerbitzuetarako beharrezko sarbideekin.

## Txakurrentzako bi gune berri sortzen hasi da Bostgarrena eta Iturribarri kaleetan, itxiak eta ekipatuak

Udalak txakurrentzako bi gune berri prestatuko ditu, itxiak eta ekipamenduarekin, Algortako Bostgarrena eta Iturribarri kaleetan, aurreko garatutako Aurrekontu Parte-hartzaileen prozesuaren emaitza bezela. Obren multzoak 47.000 euro inguruko inbertsioa ekarriko du, eta lanak urtea amaitu arte luzatzea aurreikusten da.

Gorka Mostajo Partaidetzako zinegotziak adierazi duenez, "proiektu honekin 2025eko Aurrekontu Parte-hartzaileen esparruan herritarrekin hartutako konpromisoetako bat betetzen da. Espero dezagun getxoitarrek, beren maskotekin batera, herritarrengandik eta herritarrentzat sortutako espazio berri horiez gozatzea". Era berean, herritarrek animatu dituzte "etorkizuneko parte-hartze prozesuetan proposamenak egiten eta parte hartzen jarraituz, guztion artean Getxo hobe bat eraiki ahal izateko".

Bestalde, Iñigo Urkitza Ingurumen Zerbitzuko zinegotziak Udalak zuhaitz-espezieak berreskuratzeko duen konpromisoa nabarmendu du. "Proiektu honek zuhaitzak berreskura-



tze eta azpiegitura berdea hobetzeko dugun konpromisoa indartzen du. Aleak eremu horietara lekualdatzen ditugu, geldialdi begetatiboaren hasiera aprobetxatuz, eta, hala, CO<sub>2</sub> emisioak murrizten dituzten, babes klimatiko eskaintzen duten eta herritarrek eskatutako eremuetan integratzen diren espazioak sortzen ditugu; halaber, gure etxe-animalien gozamenarako eremuak berreskuratzeko ditugu, eta ingurune jasangarriagoak eta erakargarriagoak sortzen".

**Bostgarrenan**, gutxi gorabehera 130 metro linealeko perimetroa duen esparru itxi bat eraikiko da zelaian. Bertan, funtsezko zerbitzuetako eta

larrialdietako ibilgailuak igarotzeko bateraezintasunagatik Miramar, Bilbao eta Andres Isasi kaleetatik kendutako zuhaitzak landatzen ari dira. Transplante horiek azpiegitura berdea hobetzen lagunduko dute, babesleku klimatikoaren udal sarean integratuko diren egonlekuak sortuz, GJHekin eta Europar Batasunaren neutraltasun klimatiko eta deskarbonizazio 2050 estrategiarekin lerrotatuta. Beste kale batzuetatik transplanteak egiten jarraituko da, hala nola San Inaziotik, non egoera bera gertatzen den, eta, horrela, larrialdietako ibilgailuak igaro ahal izango dira.

Zelaian integratuta, eremu horretan txakurrentzako agility gune bat egongo da (modalitate lehiakor horretan, gidari batek txakur bat zuzentzen du hainbat oztopo gainditzeko, eta oztopo horiek modu garbian eta ahalik eta zehatzenean libratu behar ditu, erlojuaren aurka lehiatuz). Honako elementu hauek izango ditu: jauzi sinpleko hesiak, gelditze-mahaia, oholesia, kulunka, slalom-a, pasabidea, jauzi-gurpila eta tunela. Gainera, esparru itxian sartzeko bi ate egongo dira, bakoitza 2 metroko zabalerakoa, inguruan dauden elementuak identifikatzen dituen kartela, pet friendly iturria edo txakurrentzako ur-iturria, zakarontziak eta eguzkitan eta itzalpean dauden eserlekuak.

Azkenik, **Iturribarri**, egun dauden txakurrentzako gune irekietan ondoan, espazio berri bat prestatuko da, 45 m x 25 m-ko itxitura izango duena, eta sartzeko bi ate izango ditu, bakoitza 2 metro zabal. Eta Bostgarrenan bezala, agility gune bat integratuko da elementu berekin.

**Herritarrei udako denboraldia amaitutakoan kendu beharreko "alegria-belarrak" emango zaizkie, aleak berrerabiltzea eta landare-hondakinak murriztea bultzatzeko**

## Udazken-negu sasoiko lore-aldaketako lanak hasita

Udalak aste honetan hasi ditu udazken-negu sasoiko lorea aldatzeko lanak. Lan horiek 981 m<sup>2</sup>-ko azalera loredunean egingo dira: berdeguneetan, jardineretan, biribilguneetan eta irlatxoetan.

Berrerabilpen-azalez estalitako 1.571 lorezko zotal-unitate landatuko dira 553 m<sup>2</sup>-ko azalera batean, hainbat espezie-barietatekin, hala nola krabelina, dragoi-ahoa, bitxiloreak, mitxoletak, biola, myosotis, alkilegia. Horrez gain, hainbat eremutan landatutako 4.646 landare gorri, zuri, more eta arrosa koloreko ziklamenak daude.

Eremu horietan, halaber, 1.100 tulipa-unitate jarriko dituzte, hainbat konfiguraziotan. Horiek loratzen direnean, kromatismo berezia emango diete landatzen diren arreta-eremuei. Udazken-neguko lore landaketaz gain, Udalak Areetako Geltokia Plazan kamelia gorriak eta azalea grisak landatuko ditu, baita Txurruka inguruan ere.

Loreak aldatuko diren lekuak ia udalerrira osoan daude.



**Erretiratutako landareak ematea** Udazken-neguko lorea prestatzeko ekintzetan, udaberri-udako landarea kenduko da, eta alegria-

-belarren (ajonjoli, sesamun indicum) kasuan, *Neguan inauten banauzu eta zaintzen banauzu, udaberrian berriro loratuko naiz* lelo-

pean, Udalak aleak emango dizkie herritarrei, landare-hondakin berrerabilera eta sorrera murriztea sustatze aldera, konpostajerako. Horrela, lan-guneetan (goizetan) landare horiek eta substratua emateko tokiak egokituko dituzte, etxeetan inausi ahal izateko, negua igarotzeko prestatzeko, udaberri arte zaintzeko eta, horrela, udaberriko loraldiarekin landare hori eduki ahal izateko. Entregatzeko puntuak honako hauek izango dira:

- Azaroaren 20an: Algortako Geltokia plazan.
- Azaroaren 24an eta 25ean: Ormazan.
- Azaroaren 26an eta 27an: Areetako Geltokia Plazan.
- Abenduaren 1ean eta 2an: Regoyos parkean.
- Abenduaren 3an eta 4an: Santa Ana ermitan.

Udalak herritarrei erantzunkidetasuna eskatu die landaketak egoera egokian izateko, eremuetan alerik kendu gabe eta etxe animaliekin sartu gabe.

### TOKIKO KLIMA ETA ENERGIA PLANA

AURREZ AURREKO PARTE-HARTZE SAIOA

Getxoko Udalak aurrez aurreko parte-hartze saio bat antolatu du, herritarrei irekia, udalerriko Klima eta Energia Planak jasoko dituen neurriei buruz ekarpenak egin ahal izateko.

Animatu eta parte hartu!

**AZAROAREN 27AN**

**19:30ean**

Getxo Elkartegia,  
Ogoño kalea, 1 (Areetako)



PLAZA MUGATUAK.

Parte hartzeko, QR kodigoa eskaneatu edo estekaren bidez izena eman <https://labur.eus/4hliq/k>